

- *Unitate mugikorrak.*



Unitaterik sinpleenetarikoak, igorgailu garraiagarri batez osatuta daude zeinak helburu honetarako diseinatuta dauden frekuentzia bandetan igortzen duen. Unitate mugikorratik igorritako seinaleak irrati emandegian kokatutako hartaille batek jaso egiten ditu.

Unitate mugikor konplexuagoak badaude, ordea. Hauek estudio garraiagarrien lez funtzionatzen dute, igortzeko era guztietako ekipamenduak dituztelarik. Irrati emandegitik kanpo zuzenean lan egiteko aukera ematen dute unitate hauek.

Irrati emandegi guztiek amankomuneko ekipamendu oinarritzko bat konpartitzen dute.

Alde batetik frakuentzia baxuan lan egiten duen ekipamendua legoke: magnetofonoak, mikrofonoak, *fonochasis*-ak... Hau da, nahasketa mahaiara heldu aurretik, soinua manipulatzeko duten tramankuluak.

Bestetik frekuentzia altuan lan egiten duen ekipamendua legoke. Behin frekuentzia baxuko audio seinalea nahasketa mahaiatik aterata, frekuentzia altuko ekipoak lanean hasiko dira.

Nahasketa mahaiatik ateratzen den seinalea, ekipo igortzaileekin elkarlotu ahal izateko, hiru lotura mota bereiz ditzakegu: lotura telefonikoa, kalitate baxua emateagatik ez oso gomendagarria; kable koaxiala oso egokia distantziak 2 km koak baino baxuagoak direnean; eta mikroonden bidezko lotura lotura sistematik hoberena kontsideratzen dena.